

Plan estrategikoa 2023/2026

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea

Aurkibidea:

- A. IKASTEGIAREN AURKEZPENA
- B. LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEAREN 2023-26 PLAN ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZESUA
- C. AUKERAK, MEHATXUAK, INDARGUNEAK, AHULGUNEAK (AMIA)
- D. 2023/2026 PLAN ESTRATEGIKOA

A. IKASTEGIAREN AURKEZPENA

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea 2016an sortu zen, bat egin zutenean Gizarte Langintzaren eta Lan Harremanen eta Giza Baliabideen alorretan sustrai sendoak eta ibilbide luzea zuten bi unibertsitate eskolak. Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola sortu zen joan den mendearen 60ko hamarkadan; Lan Harremanen Unibertsitate Eskola, 1989an. Bategite horrek aukera eman digu eraikitzeko memoria historikoa oso presente duen fakultate bat, hasieratik bertatik mamitutako proiektu bat, ikasle belaunaldi askoren bilakaerari eta hainbat ikasketa planen esperientziari esker, kalitatezko irakaskuntzan sustraituta dagoena eta lotura estua eta luzea duena jarduera aktiboan dauden profesionalekin.

Gaur egun, gure fakultatearen graduko eskaintza erreferentea da bere jakintza adarretan, bai UPV/EHUren barruan bai Euskal Autonomia Erkidegoan. Bestetik, fakultateak hazkunde esponentziala izan du tituluen eskaintzan, aipatzekoak izanik Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren ibilbide duala (2018/19 ikasturtetik aurrera), Negozioen Kudeaketa + Lan Harreman eta Giza Baliabideak gradu bikoitza (2019/20 ikasturtetik aurrera) eta bi masterrak, aurrekoei gehitu behar zaizkie bost berezko titulu, horietatik lau azken lau urteetan eskainiak. Azken horiek martxan jartzeko erakunde publikoetatik eta antzekoetatik lortutako finantzaketak agerian uzten du ikasketa horiek pizten duten interesa jarduera aktiboan dauden profesionalen eta gure egresatuen artean, eta berretsi egiten du gure fakultatearen konpromiso akademiko eta soziala, gogoeta batetik sortutako tituluak direlako, interes taldeekin batera testuinguru sozial eta profesionalari eta talde horien beharrei buruz eginiko gogoeta. Interes taldeekiko harreman estu horri esker, aurrera egin dezakegu ere eskainitako graduen arteko elkargune tematikoetan, feedback sareak zabalduz jarduera aktiboan dauden profesionalekin (gure ikasleek

etorkizunean lan egingo duten testuinguruetan lan egiten duten profesionalak). Era berean, interes taldeek modu aktiboan parte hartzen dute gure ikastegiaren kalitate prozesuetan.

Fakultatearen egitura sendotuz eta egituratuz joan da, arduraz eta eraginkortasunez jokatuta hobetu daitezkeen gaien berrikuspenean, bai eta hobekuntza horiek aplikatuta ere. Kalitate politikaren etengabeko helburua izan da emaitzak aztertzea, neurtzea eta kalitate sisteman sartzea. Gure kudeaketa sistema AUDIT eredutik harago doa, kudeaketa integrala izanik jomuga (kalitate eta bikaintasunezko EFQM eredu), eta hori izan da dekanordetzetako erantzukizunak egituratzearen zioa, kalitate sistemaren eskakizunak eta zereginen barne antolakuntzak honako hau bezalako funtsezko alderdi batean inbrikatuta egoteko. Lanean ari gara 2023-26 urteetarako fakultatearen Plan Estrategikoaren azken fasean, eta ondoren berrikusi egingo dira sakon kalitate politika eta helburuak, planarekin lerrokatzeko.

Dekano taldeak (bi campusetako eta hainbat sailtako irakasle-ikertzaileek osatua) eta administrazio eta zerbitzuetako langile taldeak konbinatzen dituzte esperientzia eta erakundea hobetzeko konpromisoa, eta haien ikuspegiak aberastu egiten ditu fakultatea kanpora proiektatzeko aukerak. Bi hiritan gaudenez, dekanoren diseinuak oso kontuan izan du alderdi geografikoa, Egoitza bat (Leioan, Bizkaia) eta Atal bat (Gasteizen, Araba) dituen Fakultate bakar baten zereginak errazteko helburuaz. Nabarmenezkoa da talde berri honek, fakultatea 2021-25 urteetan kudeatzeko sortua, denbora gutxi daramala bere erantzukizunetan, taldekide batzuk aurretik dekanordeak izan badira ere. Taldearen koordinazioak (prozesuak eta prozedurak modu egoki eta eraginkor batean banatzeko) aukera ematen du modu orekatu batean esleitzeko erantzukizunak taldekideei, eta lanak era arrazional eta konpentsatu batean banatzeko. Egoitzaren eta Atalaren artean funtzioak eskuordetzeak eta dekanoa (Atalari atxikia) astero campus batetik bestera ibiltzeak laguntzen dute ikastegiaren kudeaketa kohesionatzen. Aldizkako dekanoren bileren helburua da koordinatzeko, eztabaidatzeko eta elkartzeko guneak sustatzea, gogoeta, analisia eta hobetzeko proposamenak bultzatzeari begira.

Era berean, nabarmendu behar da teknologia berrien oinarritzko eginkizuna elementu kohesionatzaile gisa (gure kasuan, Blackboard Collaborate eta Webex plataformak). Pandemiak behartu egin gaitu areagotzera tresna horien gaitasunak eta, zorigaitzetik onura ateraz, funtsezko baliabideak izan dira ikastegia modu malgu eta bizkorrago batean kudeatzeko.

B. LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEAREN 2023-26 PLAN ESTRATEGIKO AEGITEKO PROZESUA

Dekano taldea aldatzeak, 2021. urtean, hasiera eman zion Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearen 2023-2026 Plan Estrategikoa (PE, aurrerantzean) lantzeko prozesuari.

Prozeduraren eta prozesuaren arduradunek eta ikastegiko teknikariek bilkurak egin zituzten UPV/EHUren Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuarekin (KEIZ), fakultatean Kalitatearen Barne Berme Sistemaren (KBBS) ziurtagiria lortzeko epeak zehazteko helburuaz.

2021eko irailean, dekanok taldeak PEn ardatz estrategikoak zehaztu zituen, beren aldetik lerrokatuak UPV/EHUren PErakin. Gainera, Kalitate Batzordeak egiaztatu egin zuen zer mailataraino bete ziren 2018-2021 PEko ekintza estrategikoak, Ikastegiaren Urteko Kudeaketa Txostena eta Plana egitean.

Ardatz Estrategikoen proposamena:

- Tituluen kudeaketa
- Administrazioa eta azpiegiturak
- Ikastegiko langileak eta barne komunikazioa
- Ikasleak
- Kanpo komunikazioa eta gizartearekiko interakzioa

Hasieratik bertatik, dekanok taldeak erabaki zuen protagonismoa ematea barne eta kanpoko interes taldeei, identifikatzeko bai PEn ardatz estrategiko bakoitzaren helburuak bai helburu estrategikoak betetzeko ekintza estrategikoen proposamenak. 2021eko urrian eta azaroan, bilkurak egin ziren interes taldeekin. Talde horien protagonismoa indartzeko, erabaki zen dekanok taldeko kideak ez joatea bilera horietara eta dekanok eta Prestakuntza Dualeko eta Borondatezko Praktiken dekanordea arduratzea saio horiek bideratzeaz, bilkuretan idazkari gisa arituta.

Interes taldeak:

- Ikasleak
- Irakasleak
- Titulu koordinatzaileak.
- AZP
- Enplegatzaileak eta kanpo kolaboratzaileak
- Halaber, erabaki zen informazioa eskatzea UPV/EHUren beste zerbitzu eta errektoreordetza batzuei.

2021eko urrian eta azaroan, bilkurak egin ziren zerbitzu eta organo horiekin guztiekin, eta bilkura horietan identifikatu ziren bai planaren helburuak bai helburu horiek betetzeko proposamen ugari.

2021eko abenduan, fakultatearen hil horretako buletin/newsletterrean, jakinarazi zen zer egin zen ordura arte eta zer urrats egingo ziren handik aurrera plana osatzeari begira.

2022ko otsailean, behin informazio guztia jasota eta ordenatuta, AMIA analisia egin eta 5 ardatz estrategiko eta 16 helburu zituen dokumentu bat adostu zen. Nabarmentzekoa da, prozesuaren puntu horretan, helburuak betetzea ahalbidetu behar zuten 90 ekintza genituela, interes taldeekin eginiko saioetan bildutakoak.

2022ko apirilean, aipatutako informazioarekin, prozesuaren eta prozeduraren arduradunek eta egoitzako kalitate teknikariak adierazleak finkatu zituzten, helburuak zer mailataraino beteko diren neurtzea ahalbidetuko dutenak.

2022ko ekainean, Kalitate Batzordeari eta ikastegiko batzordeburuei eskatu zitzairen berrikusteko eta osatzeko proposatutako ekintza sorta, bai eta adierazleak eta AMIA ere.

2022ko uztailean, zirriborro hau helarazi zitzairen fakultate barneko interes taldeetako kideei, hobekuntzak proposa zitzaizten, alegazioak aurkeztu, etab., irailaren lehen hamabostaldian.

Kalitate Batzordeak, UPV/EHUren Kalitate Zerbitzuarekin ados jarrita, pentsatu zuen PE operatiboago bat lor zitekeela ordura arte eginiko ekarpenak galdu gabe, ekintza eta adierazle kopurua doituta, 30 ekintza eta adierazle ingurura. Barne Berme Sistema ezartzeko kanpoko ebaluatzaileen taldeak, 2022ko azaroan eginiko bisitan, indargunetzat hartu zuen aurkeztutako PEa, eta egokitzat jo zuen Kalitate Batzordeak ekintza eta adierazle kopuruari buruz eginiko gogoeta.

Azkenik, Kalitate Batzordeak, bat etorritik denboran Urteko Rudeaketa Txostena eta Plana lantzeko prozedurak eta prozesuak berrikusteko aldiarekin, onspena eman zion PE honi, 2023ko otsailean aurkezteko Fakultate Batzarraren aurrean.

Horrenbestez, plan estrategikoak ditu 5 ardatz estrategiko, 15 helburu estrategiko, 31 ekintza estrategiko eta 29 adierazle estrategiko.

C. AUKERAK, MEHATXUAK, INDARGUNEAK, AHULGUNEAK (AMIA)

Aukerak	Kanpo faktoreak
<ol style="list-style-type: none"> 1. Sinergiak eta lankidetzak erakunde eta enpresa kolaboratzaileen sare finkatuarekin. 2. Egoitza eta atala lankidetzan aritzeko aukerak, kontuan izanik irakasleen profil bateragarriak eta eskainitako tituluen dibertsitatea. 3. Lan merkatua: sentsibilitate handiagoa, baliabideak eta jardun eremu berriak gizartean Gizarte Langintzarako, eta gizarte gradudunaren lanbidearen garrantzi handiagoa lan erreformaren ondoren (ABEEak, berdintasuna, kontziliazioa, inklusioa...). 4. Gradu bikoitzak erakartzen ditu profil askotarikoagoak eta espediente hobekak dituzten ikasleak. 5. Gradu bikoitzean Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearekin lankidetzan aritzeak aliantzak eta loturak errazten ditu. 6. Prestakuntza dualeko ibilbidearentzat Aipamena lortzeak eta berriki onartutako Unibertsitate Prestakuntza Dualerako kontratuak segurtasun juridiko handiagoa ematen diote tituluari. 7. KBBSren ezarpenaren ziurtapena. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Jaiotze tasa txikitzea. 2. Gehiegizko titulu kopurua unibertsitate publikoetan eta pribatuetan. 3. Online graduondoko gero eta gehiago, UPV/EHU eta beste unibertsitate batzuetan, zaildu egin dezakeena gure fakultateko graduondoko presentzial edo semiprentzialesetan matrikulatzea. 4. Belaunaldi aldaketa irakasleen artean (erretiroengatik), aurrekontu murrizketen testuinguruan. 5. AZP kopurua eta profila ez datoz bat azken urteetan izan den zereginen ugaritzearekin, titulu berriak kudeatu behar izateagatik (graduondokoak eta gradu bikoitza), mugikortasuna eta praktikak areagotzeagatik eta Kalitatea kudeatu behar izateagatik. 6. AZPko langileen txandakatze handiak zaildu egiten du kudeaketa. 7. Finantzaketa falta da prestakuntza dualerako, eta prestakuntza horretarako kontratua egin beharrak uzkurto egin ditzake enpresak.

<p>8. Fakultatearen arlo tematikoen lotura gizartean interes handia duten gaiekin (GJH, berdintasuna, etab.).</p>	<p>8. Fakultatearen pisu espezifiko txikia, UPV/EHUko fakultate indartsuagoekin alderatuta.</p>
<p style="text-align: center;">Kanpo</p> <p style="text-align: center;">Indarguneak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Matrikulazio handia, eta hazten, lehenengo aukera gisa. 2. Enplegarritasun tasak, oso onak. 3. Praktiken programa askotarikoa eta arrakastatsua, kantitatean nahiz kalitatean. 4. Titulazioen eskaintza sendoa, eta ikastaro osagarri eta berezko tituluen eskaintza, antzeko alorretako profesionalei. 5. Tituluen eskaintza askotarikoa: Graduak, graduondokoak, gradu bikoitza eta prestakuntza duala. 6. Mugikortasun tasa egokiak. 7. Titulazio osoak bi hizkuntza ofizialetan, ikasle kopuru handi batekin eta irakasle elebidunekin. 8. Ingelesez emandako irakasgaien etengabeko hazkundera, bai eta irakasgai horietarako irakasle akreditatuena ere. 9. Irakasleen esperientzia zabala ikerketan eta gizarte erakundeekiko, enpresekiko eta instituzioekiko lankidetzan. 	<p style="text-align: center;">faktoreak</p> <p style="text-align: center;">Ahulguneak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Fakultatean egoitza duten sailen falta. 2. Ikastegiari atxikitako irakasleen kopuru txikia. 3. Ikastegiari atxikitako ikerketa eta doktorego azpiegitura gutxi. 4. Bi campusetan egoteak sortzen dituen zailtasunak (Araba eta Bizkaia). 5. Irakasle askoren interesik eza ikastegiaren kudeaketan. 6. Master ofizial bat ez izatea Atalean. 7. Lan tradizio txikia hezkuntza berrikuntzaren lerroan. 8. Lotura txikia ikasle egresatuekin. 9. Irakasleen nazioarteko mugikortasun txikia.

D. 2023/2026 PLAN ESTRATEGIKOA

1. ardatz estrategikoa: TITULUEN KUDEAKETA	
O1	Fakultatearen tituluak hobetzea
	<p>ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Graduarekiko gogobetetze maila (UPV/EHU gradua) GL gradua: goi mug.: 5.0; behe mug.: 3.5. LH eta GB gradua: goi mug.: 4.2; behe mug.: 3.9. Negozioen Kudeaketa + Lan Harreman eta Giza Baliabideak gradu bikoitza: goi mug.: 4.2; behe mug.: 3.9</p> <p>Irakaskuntzarekiko gogobetetze maila (UPV/EHU masterra) LSO masterra: goi mug.: 5.0; behe mug.: 3.7. GB eta EK masterra: goi mug.: 5.0; behe mug.: 3.5</p> <p>Egresatuen gogobetetasuna (gradua) GL gradua: goi mug.: 10; behe mug.: 6.0. LH eta GB gradua: goi mug.: 10; behe mug.: 6.0</p> <p>Egresatuen gogobetetasuna (masterra) LSO masterra: goi mug.: 7.0; behe mug.: 6.0. GB eta EK masterra: goi mug.: 8.0; behe mug.: 7.0</p>
1.1	Egresatuen profila ebaluatzeko sistema hobetzea
1.2	Enplegatzailleek eskatzen dituzten ezagutzak sartzea ikasketetan
1.3	Gizarte langintzaren ikasketa plana aldatzea
1.3.1.	Aukerakotasuna egokitzea Gizarte Langintzako graduan
1.3.2.	Practicuma planifikatzea Gizarte Langintzan
1.3.3.	Gizarte Langintzako 4. mailaren egitura
O2	Hezkuntza berrikuntza eta eleaniztasuna sustatzea
	<p>ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IRI (%) ikastegi bakoitzeko (ikastegia) Goi mug.: 55; behe mug.: 51</p> <p>Hizkuntza ez-ofizialetan emandako irakasgai moduluen kopurua (ikastegia) Goi mug.: 2; behe mug.: 0</p>
2.1	Irakaskuntza metodologia berritzaileak finkatzeko estrategiak ezartzea eta tituluaren gaitasunak egokitzea
2.1.1	UPV/EHUren irakaskuntza berrikuntzarako deialdiak sustatzea eta inplementazio bideak bultzatzea
2.1.2	Docentiaz programa bultzatzea fakultatearen irakasleen artean

2.1.3	UPV/EHUren katalogoaren zeharkako gaitasunak egokitzea eta txertatzea
2.1.4	Irakasleekjada garatutako irakaskuntza berrikuntzako proposamenak zabaltzea
2.2	Irakasleen mugikortasuna indartzea atzerriko unibertsitateetara
2.3	Nazioartekotzea eta irakaskuntza eskaintza indartzea hizkuntza ez-ofizialetan
O3	Etengabeko prestakuntzaren titulu berrien eta berezkoen eskaintza aztertzea
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Kolaborazio kop. erakunde eta instituzioekin Goi mug.: 5; behe mug.: 3
3.1	Titulu berrien eskaintza aztertzea
3.1.1	Titulu berriak sortzeko aukera aztertzea, berdintasuna bezalako arloetan
3.1.2	Atalean master ofizial bat sortzeko aukera aztertzea
3.2	Berriz saiatzea Zuzenbide Fakultatearekin lankidetzaz ezartzen, Gradu Bikoitza: Zuzenbide+Lan Harreman eta Giza Baliabideak
3.3	Unibertsitate hedapeneko berezko ikasketen eskaintza baloratzea
O4	Berdintasuna zeharkako ardatz gisa ezartzeko aukera lantzea
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzeko ekintza kop. (sustapena eta dibulgazioa) (ikastegia) Goimug.: 4; behe mug.: 2
4.1	Ikastegiaren Berdintasun Plana lantzea eta ezartzea
4.1.1	Fakultatearen berdintasun alorreko urteko plangintza lerrokatzea UPV/EHUren Berdintasun Planarekin, ekintzen kronograma barne
4.1.2	Berdintasunari buruzko jardunaldiak bultzatzea fakultatean
4.1.3	Jardunaldiak antolatzea gizarte langintzari eta lan harremanei buruzko gaiak aztertzeke ikuspegi feminista batetik.
O5	Euskararen erabilera bultzatzea eremu formalean eta informalean
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Euskararen erabilera sustatzeko ekintza kop. (ikastegia) Goimug.: 4; behe mug.: 2 Euskarazko irakats materiala bultzatzeko deialdian parte hartzen duten irakasle kop. (ikastegia) Goimug.: 6; behe mug.: 4
5.1	Euskarazko baliabide eta trebetasunen erabilera sistematizatzea eta optimizatzea

5.1.1	Fakultatearen Euskara Plana eguneratzea
5.1.2	BIKAIN ziurtagiria ezartzeko lan egitea
5.1.3	Euskarara itzultitako irakats materiala identifikatzea, multzokatzea eta ordenatzea
5.1.4	Gizarte Langintzako graduko practicumeko instruktore elebidunen datu basea eraikitzea
5.1.5	Hizkuntzen erabilera trebetasunei buruzko tailer bat antolatzea graduko lehen mailako ikasleentzat
2. ardatz estrategikoa: ADMINISTRAZIOA ETA AZPIEGITURAK	
O6	Euskalit Kudeaketa Aurreratuaren eredia ezartzea
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) AZPkoen gogobetetzea. Ikastegiaren edo sailaren lidergoa Goi mug.: 4; behe mug.: 3.3 IRIen gogobetetzea. Ikastegiaren edo sailaren lidergoa Goi mug.: 4; behe mug.: 3.3
6.1	Aurrera egitea Kudeaketa Aurreratuaren ziurtagirian
6.1.1	Ziurtagiri instituzionala lortzea, KBBSren ziurtagiria lortu ondoren
O7	Guneak optimizatzeko eta ekipamenduak hobetzeko lan egitea
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Multimedia laguntza zerbitzuak egoki erantzuten die beharrei (IRI gogobetetze inkesta) (ikastegia) Goi mug.: 4; behe mug.: 3.3 Ikasgelak eta haien ekipamendua egokiak dira kalitatezko irakats lana egiteko. (D 4.13 IRI) (ikastegia) Goi mug.: 4; behe mug.: 3.3
7.1	Atalaren Ebakuazio Plana berrikustea
7.2	Egoitzaren azpiegiturak egokitzea haren beharretara
7.2.1	Talde lanerako gelak egokitzea Egoitzan
7.2.2	Korronte hargune gehiago ikasgeletan
7.2.3	Giltza elektronikoa ezartzea fakultatean
7.2.4	Ikus-entzunezko zerbitzuetan berezko lantaldea edo beste fakultate batzuekin partekatua lortzeko lan egitea
3. ardatz estrategikoa: IKASTEGIKO LANGILEAK ETA BARNE KOMUNIKAZIOA	
O8	Ikastegiko langileen garapen profesionalerako kanalak sortzea
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) AZPkoen gogobetetzea oro har (ikastegia) Goi mug.: 5; behe mug.: 3 IRIen gogobetetzea oro har (ikastegia) Goi mug.: 4; behe mug.: 3.3

	Unibertsitateak prestakuntza programak eskaintzen ditu IRIen garapenerako, nahikoak eta D3.3 kalitatekoak. (ikastegia) Goi mug.: 3.51; behe mug.: 3.4
8.1	IRI eta AZPkoek dekanotzarekin dituzten komunikazio kanalak berrikustea
8.1.1	AZPkoen lan kargen eta erantzukizunen desorekak argitzea (eginkizunak, gerora sortutako lanak, etab.)
8.1.2	Harrera Plana hobetzea
8.2	Irakasleentzako merezimenduen eta deialdien mapa egitea, ibilbide akademikoa eta ikastegiaren interesak bateratuta.
O9	Irakasleek eta sailek ikastegiaren kudeaketan eta jardueretan duten parte-hartzea bultzatzea
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) IKEetatik sortutako hobekuntza ekintza kop. Goi mug.: 3; behe mug.: 1 Irakasle-tutoreek praktika guneetara urtean eginiko bisita kop. (ikastegia titulua) Goi mug.: 110.0; behe mug.: 90.0
9.1	Fakultatearen zereginen urteko kronograma eguneratzea
9.2	Lankidetzaren sinergiak ezartzea Egoitzako eta Ataleko irakasleen eta AZPkoen artean, fakultatearen berezko jardueretan
O10	Egitura formalak eta informalak sortzea, ikerketa sustatu eta errazteko
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Ikastegiak errespetuan oinarritutako harremana sustatzen du sailen artean (ikastegia) Goi mug.: 4; behe mug.: 3.3
10.1	Ikastegiko irakasleen eta doktoregaien ikerketan laguntzea: ikerketari buruzko tailerrak eta mintegiak, eta inpaktu handiko aldizkarietan argitaratzea, jardunaldiak eta ponentziak ikertzaile ospetsuekin, etab.
10.2	Erakundeen arteko harremanak indartzea, ikerketa proiektuetan lankidetzan arituz, hainbat erakunderekin
10.3	Estuago lotzea praktika eremuak eta interes taldeen beharrak irakasleen ikerketarekin
4. ardatz estrategikoa: IKASLEAK	
O. 11	Komunikazio kanalak dibertsifikatzea eta optimizatzea
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Sare sozialetako jarraitzaile kopurua (ikastegia) Goi mug.: 400; behe mug.: 250 Fakultatearen tituluen bideoen ikustaldi kop. (ikastegia) Goi mug.: 800; behe mug.: 600
11.1	Entzute eta Erantzute Sarea ezartzea

11.2	Mail korporatiboaren erabilera bultzatzea
O.12	Bizitza akademikoan eta sozialean parte hartzearen alde lan egitea
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Ikasleen parte-hartzea kide anitzeko organoetan (%) (ikastegia) Goi mug.: 75; behe mug.: 25
12.1	Parte-hartzea bultzatzea ikastegiaren organoetan, ordezkariak, etab.
12.1.1	Hainbat maila eta taldetako ikasleen arteko harremana estutzeko ekintzak
12.2	Ikasleen iritzia jakiteko metodologia berriak aztertzea
O.13	Ikasleei laguntzea eta aholku ematea beren ibilbide akademikoan eta laneratzean
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Gogobetetze maila Prestakuntza eta Elkarretaratze Profesionalerako Jardunaldiaren garapen eta emaitzekin (ikastegia titulua) Goi mug.: 4.2; behe mug.: 3.5 Prestakuntza dualarekiko ikasleen gogobetetzea (ikastegia titulua) Goi mug.: 4.5; behe mug.: 3.5 Ikasleen gogobetetzea curriculum praktikekin (ikastegia) Goi mug.: 5.0; behe mug.: 3.5 Ikasleen gogobetetzea borondatezko praktikekin (ikastegia titulua) Goi mug.: 4.2; behe mug.: 3.5
13.1	Berdinen arteko tutoretzaren (BAT) sistematika indartzea eta GLn ezartzea baloratzea
13.2	Fakultateko Orientazio Profesionaleko ikastaroak indartzea
13.2.1	Master ofizialei eta ikertaldee buruzko informazioan sakontzea, karrera akademikoari begira
13.2.2	Hirugarren sektoreko ekosistema ezagutaraztea
5. ardatz estrategikoa: KANPO KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTEAREKIKO INTERAKZIOA	
O.14	Gizartean presentzia handiagoa izateko mekanismoak ezartzea eta erreferenteak izatea gure bi alorretan (LH eta GL)
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Kolaborazio kop. erakunde eta instituzioekin (ikastegia) Goi mug.: 5; behe mug.: 3

14.1	Gizartean presentzia handiagoa lortzeko eta ikastegiaren berezko alorretan erreferenteak izateko zabalkunde mekanismoak ezartzea
14.1.1	Ikastegiko irakasleen lana zabaltzea fakultatearen tresnen bidez (webgunea, buletina, sare sozialak) eta UPV/EHUren tresnen bidez (sare sozialak, Campusa aldizkaria, prentsa kabinetea)
14.1.2	Laneratze datuen segimendua egitea eta zabaltzea
14.1.3	Graduak ematen diren eraikinei buruzko bideo txikiak egitea, etorkizuneko ikasleentzat jada badagoen informazioaren osagarri
14.1.4	Fakultatearen gertakarien mugarren kronograma egitea, haien zabalkunderako dinamika bat ezartzeko abiapuntu gisa
14.2	Interes talde, pertsona eta erakundeeetako interakzio mekanismoak garatzea
14.2.1	Diziplina eta diziplina arteko mintegiak sortzea interes taldeekin
14.2.2	Hitzaldiak antolatzea hainbat pertsona, agente eta erakunderekin, graduekin zerikusia duten gaietarako buruzkoak, gizarte agendan eta politika publikoen agendan dauden gaiak
14.2.3	Gure ezagutza arloei lotutako elkarteek eskaintzen dizkiguten inertiak aprobetxatzea eta jarduerarekin areagotzea (AUETS, EASSW, CRL...)
14.2.4	UPV/EHU Gizarte Aholkularitza eta Laguntza Zerbitzuen baten premia defendatzea.
O.15	Ingurumena zaintzeko ohiturak eta GJHen ezagutza sustatzea.
	ADIERAZLEAK (goi eta behe mugak) Garapen jasangarriaren aldeko EHUagenda 2030, AZP-D6.4 (ikastegia) Goi mug.: 3.75; behe mug.: 3.29 Garapen jasangarriaren aldeko EHUagenda 2030, IRI-D6.4 (ikastegia) Goi mug.: 3.5; behe mug.: 3.39
15.1	GJHak zabaltzeko neurriak hartzea
15.1.1	Alor ekosozialari lotutako mikrokontakizunen lehiaketa
15.1.2	Fakultatearen lema erabiltzea: berdintasunaren eta aberastasuna zuzen banatzearen alde
15.2	Energia aurrezteko eta natura babesteko neurri zehatzak hartzea
15.2.1	Unibertsitateko kideak ingurumenaren babesaz kontzientziatzeko eta gogoeta egitera bultzatzeko urteko ekintzak zehaztea

2023ko otsailaren 22an Fakultateko Batzarrean onartua